




Jose Migel  
Iztueta  
Kortajarena  
*Lazkao Txiki*

1926-1993

BIDeGILEAK

Egilea:  
**Nerea Azurmendi**



JOSE MIGEL  
IZTUETA  
KORTAJARENA  
*LAZKAO TXIKI*

(1926-1993)

Izar

misteriotsua

Lazkaoko baserririk garaienean jaio zen Jose Migel Iztueta Kortajarena, Lazkaomendiko Abaliñen, 1926ko irailaren 15ean. Gorputza ez zuen altuera handikoa izan, baina horrek ez zion bertsolaritzaren gailurra jotzea eragotzi. Bere garaiko bertsolaririk estimatu eta maitatuenetakoa izan zen, eta haren argia ez da inondik ere itzali, nekez hingatzen baita bakan agertzen diren egiazko harribitxien dirdira.

Bertsotan hasi eta berehala jarri zioten konformidatez baina poz handirik gabe

eraman zuen Lazkao Txiki goitizena. Lazkao Txiki, Txikia... Ezaugarri fisiko nabarmenenak ez zion soilik bertsotarako izena eman Jose Migel Iztuetari. Hari buruz aritzerakoan ere horixe da baliabiderik erabilienetakoa, betiere altueraren eta mailaren arteko aldea azpimarratzeko: txikiaren handitasuna; handia bere txikitasunean; gorputzez txiki, bihotzez handi... Haren bizitzaren eta jardunaren eremu askotara zabal daitekeen dualtasun halako horretan koka daiteke ondoen Jose Migel Iztueta, *Lazkao Txiki*: eskola handirik gabeko irakur zale sutsua; barrunbe

goibleko barre-eragilea; seme-alabarik gabeko umezale amorratua; jenio bizi-biziko adiskide gozo eta arretatsua; pikaro sentibera; itxura soileko izaki konplexua...

67 urte betetzeko sei hilabete falta zitzaizkionean, 1993ko apirilaren 3an, herioak bertan behera utzi arazi zizkion egiteko

zeuzkan guztiak. Manuel Lasarte bertsolariak *Lazkao Txiki gogoan* liburuan idatzita utzi duen bezala, oker jo zion kukuak. Orduantxe hasi zen betiereko argia ematen hileta agurrean beste bertsolari batek, Patxi Iraolak, ezin hobeki definitu zuen «Abaliñeko izar argia, izar misterioso».



Lazkaomendiko Abaliñen etorri zen mundura Jose Migel Iztueta, Lazkaoko baserririk garaienean

# Abaliñeko Jose Migel

**N**ek ez bereiz daitezke Jose Migel Iztueta eta Lazkao Txiki. Elkarri josita daude izena eta izengoitia, eta bien arteko uneraren batean egongo da seguruenik haren izana. Berak, tamalez, ez zion bete-bete heldu enigma argitzeari zeren eta herioak, besteak beste, iragarria zuen liburua idaztea galarazi baitzion. Hala ere, joria da Lazkao Txikiren idatzizko arrastoa, berak eta beste askok esandako hitzez osatua. Hango eta hemengo liburu eta elkarrizketetatik hartutako hariekin ehundu da Lazkaoko bertsolariaren erretratu moduko hau hartuko duen oihala, bereizezina bereiziz: oihalaren alde ba-

tean, Jose Migel Iztueta; bestean, Lazkao Txiki bertsolaria.

## ETXE POBREKO UME AZKARRA

Abalin Zaharra da gaur egun Abaliñe, Jose Migel Iztueta Kortajarenaren jaiote-txea. Lazkaoko herrigunetik aparte dago, hiru bat kilometrora. Errepide erosoak arintzen du aspaldian Lazkaomendi auzunerako bide maldatsua, baina ez zegoen horrelakorik 1926ko irailaren 15ean Jose Migel, Felipe Iztuetak eta Maria Inazia Kortajarenak izan zituzten zazpi seme-alabetan seigarrena, mundura etorri





Maria Inazia Kortajarena,  
ama, 1981ean hil zitzaion



Felipe Iztueta zuen aita,  
1959an zendua

zenean. Ez zen baserri aberatsean munduratu, lana izan ezik, ez zuten ezer soberan; baina oso maite izan zuen beti gaur egun, familiakoei esker, haren oroimena gordezten duen etxea.

Zortzi urte zituela hasi zen eskolan, Errepublikara garaietan, Lazkaomendin bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko auzo eta bailara ugarian zabaldu zituen auzo eskola haietako batean. Oroitzapen gozoak utzi zizkion Jose Migeli aurreneko eskolaldi hark, toki majikoa izan zen irakasten zizkieten guztiak «magnetofonoak bezala» hartzen zituen umearantzat.

Badaezpada «buenos días» esaten ikasita joan zen eskolara aurreneko egunean, baina «egun on» erantzun zion maistrak, euskaraz egiten baitzituzten ikasketa guztiak euskara baino ez zekiten neska-mutikoei auzo eskola haietan. Eskolatik Donostiara egindako txangoei esker ikusi zituen halaber lehen aldiz autobusak, igo-gailuak, itsasoa, Lazkaotik Lazkaomendira igotzeko asmakizun aparta iruditu zitzaion Igeldoko funikularra... Ikasle saiatua zen Jose Migel, mutiko azkarra. Nahikoa izan omen zituen bi hilabete irakurtzen eta idazten ikasteko. Sariak ere jaso zituen

eskolarako egindako lanen kontura. Beti izan zuen eskolan gutxi ibili izanaren pena, baina ez zitzaion horretarako abagunerik aproposena egokitu: baserrian guztientzako lana egoteaz gain, 1936ko matxinadak eta haren ondorengo gerrak ikasketak eten zizkioten.



Beasaingo jaietan lagun batekin, 1941ean

Hamar urte bete zituen urtea urte garrantzitsua izan zen Jose Migelentzat. Urte hartantxe harrapatu zuen erabat bertsoarekiko lilurak eta, ume izanagatik, ez zen gerrak ekarri zituen ezbeharretatik libre gelditu. Gerra hasteko egunetan anaia bat hil zitzaion pulmoniak jo eta gaitzarentzat erremediorik ezin aurkituta. Horrelaxe zen hila beste anaia bat urtebete lehenago. Lehendik ere Abaliñen urriak ziren baliabideak murriztu egin zituen gerrak eta, beste askok bezala, gorriak ikusi zituen Iztueta familiak aurrera egiteko. Behin eta berriro esango zuen, umetako kontuak gogora ekartzean, oso oroitzapen txarrak zituela garai hartakoak.

Gerra bukatu zen, eta harekin batera gerra aurreko gauza asko; esaterako, horren gogoko zuen auzoko eskola. Lazkaomendin «salbajeak bezala» ibilitako neska-mutikoek herriko eskolara joan behar izan zuten. Lehen euskaraz zena, gaztelania hutsean. Bizi osoan gorde zituen *Txomin ikasle* eta *Xabiartxo*-ren orde, dotriña eta ulertu gabe buruz ikasten zituzten errezoak. Guztira, hiru bat urte egin omen zituen fundamentuz eskolan, baina berezkoa zuen jakin-mina ez zitzaion inoiz

agortu, eta begiak azkenekoz itxi arte eutsi zion irakurzaletasunari. Manuel Lasartek *Lazkao Txiki gogoan* liburuan dioenez, hamazazpi urte zituenerako irakurrita omen zeuzkan goitik behera Orixeren edota Lizardiren lan guztiak. Behin, Gaztelun, Orixe bera tokatu zitzaion ondoan bazkari batean, eta hizketaldi luzea egin zuten, eskolan gutxi ibilitakoaren arrazoiak idazle handia harrizterainokoa. Non ikasia zen galdetu zionean, honakoa erantzun zion Lazkao Txikik: «Nik liburuak irakurtzeko afizio izugarria dut denbora pasa nagoen-tan, eta haietatik jantzi naiz pixka bat».

## OFIZIO ASKOTAN IBILITAKO BASERRITARRA

Baserriko zereginetan laguntzen zuen mutil koskorrari heldu zitzaion soldatadun lanean hasteko unea, eta igeltsero-peoi hasi zen Lazkaoko nagusi batekin.

Igeltserotzatik soldadutzak libratu zuen bolada batean. Afrikan egon zen soldadu bi urtez, eta gatzgabeenak ere soldadutzatik kontatzeko modukoak ekartzen bazituen, pentsa zer kontakizun eta pasadizo ez ote

zuen ekarriko Iztueta gatz eta piperdunak Afrikako egonalditik! Asko, pentsatze-koa denez, altueraren ingurukoak. «Talla horrekin joan behar al duk soldadu?», galdetu omen zion batek. Eta berak erantzun: «Honekin joan beharko diat, besterik etzeukeat-eta». Galtza-barrenak arrastaka ez eramateko bueltak eta bueltak eman behar izaten zizkion soldadu-buzoari, eta telemetroarekin «apuntadore» lana egitea egokitzen zitzaionean hanka-puntetan ibili behar zuen, zentimetro batzuk ematen zizkieten botak jantzi beharrean oinetan apretak zituenean... Edonola ere, ez zen gaizki moldatu.



Afrikara bidali zuten soldadu bi urterako 1947an





Tetuanen. Orduan ere,  
gainerakoak baino txikixeago...

Aurpegian astebete iraun zion bibote eta guzti itzuli zen, 23 urteko gizon gazte, soldadutzatik. Zain zeukan bereziki erakartzen ez zuen igeltsero lana, eta hartan jardun zuen beste hamar urtez, harrik eta 1958an Lazkaon sortu berria zen Fundiciones Arriaran lantegian hasi zen arte. Bazebilen ordurako bertsotan, poliki ibili ere, baina beste nonbaitetik atera behar zuen bizimodua, eta ez zeukanez



Makina bat kilometro egin zuen pentsu-saltzaile,  
baina ez omen zuen lanbide horretarako balio.  
Finegia zen, alegia

bestelako ofiziorik —ofzioren bat ikasi ez izana ere damu zitzaion—, fabrikan ibili zen bospasei urtez. 60.eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, berriz, pentsu-saltzaile batetik bestera, biajante Iruñeko Piensos Cometa etxearentzat. Bertsolari ezaguna zen ordurako, txapelketetan-eta punta-puntan zebilena. Ezaguna eta estimatua izanik, ate asko irekitzen zizkioten sonak zein izaerak, baina ez omen zuen saltzailetarako balio. Finegia zen, alegia.

Fabrikakoa baino hurbilago zegoen lan hura umetatik bihotzean errotuta zeukan



Zaldibiko Gurutzetan gauzatu zuen baserri baten jabe izateko ametsa

baserri mundutik. Izan ere, samurtasunez kantatu izan zion beti baserriari, baserrien eta baserritarren etorkizunari buruz kezkatu azaltzeari uko egin gabe. Aukera izan zuenean, 1973an, Gurutzeta baserria erosi zuen Zaldibin, sozio batekin erdibana. Txerrikumeak hazten hasi ziren, behi-azienda jarri zuten gero, eta 1986an bete zuen ametsa, baserriaren jabe bakar egin zenean. Ilusio handiz, goitik behera berritu zuen baserria, dotore jarri zuen etxea. Zoritxarrez, ezin izan zuen nahi beste gozatu bizitza osoan amestutakoa.



Bihotzak egin zion azkenean huts

## DESPERTADOREAK EZ ZUEN JO

Handia izanagatik, Jose Migel Izuetaren bihotza ez zen sendoa. Medikuetan maiz ibilia zen, eta erietxea zer zen bazekien 1993ko urtarrilean bihotzeko ebakuntzarako zita jarri ziotenerako. Ebakuntza Donostiako Poliklinikan egin zioten, 1993ko urtarrilaren 28an. Bertsotan aritua zen Donostian bertan, ospitalean sartzeko bezperan. Arina izan gabe, hasiera batean ebakuntzak ez zuen aparteko konplikaziorik. Berak bazituen noski errezelo eta kezak, eta ateraldietarako kemena ere



Milaka lagun bildu ziren Lazkaon Lazkao Txikiri agur esateko

bai, makal ibili arren. Lazkao Txikiren ateraldiak sailkatzekotan, bi jarri behar dira aipatuenen buruan. «Jaiio Lazkaon, hazi inon ere ez» erantzun zueneko, eta operatu aurretik anestesia jarri behar zion medikuari esana: «Zuk lo jarriko nauzu, baina nork jarriko du despertadorea?».

Eta despertadoreak ez zuen espero bezala funtzionatu, ez zuen jo. Jose Migel Iztueta ez zen anestesiatik iratzarri, eta operatu aurretik hartu zuen loak ez zuen gehiago askatu. Bi hilabetetik gora egin

zuen koman ospitalean bertan, eta egun haietako egunkariei erreparatzea besterik ez dago Lazkao Txiki zein estimatua eta zein ezaguna zen ikusteko, egunez egun ematen baitzuten haren osasun egoeraren bilakaeraren berri. Oheburutik aldendu gabe eduki zituen ilobak eta lagun minenak, baina Gipuzkoa osoa zeukan adi eta kezkatu. Foru Aldundiak ere egin zituen gestioak Lazkao Txikiren ondora une hartako neurologorik ezagunenetakoren bat ekartzeko.

Andoni Egañak otsailaren 13an jarri zizkion bertsoak dira askoren kez karen leku ko. Hiru bertso tan bigarrena da honakoa:

Non galdu zaigu bertso on baten  
ondoreneko marmarra  
Non galdu zaigu ziri sartzea?  
Non galdu da irriparra?  
Fintasuna ta gordinkeria  
berezi ohi ditun marra  
lehen zebilen txirri-txarra,  
moteldu da motor zaharra,  
Txikiaren bihoztzarra  
umorea da zu esperantzan  
mantentzen zaitun indarra  
ta esperantza da gu umoretsu  
mantentzen gaitun bakarra.

Umorea, haatik, ez zen nahikoa izan. Martxoak aurrera egin ahala, biriketako infekzio batek konplikatatu zuen berez zaila zen osasun egoera, eta hilabete amaieran Matia egoitzara aldatzea erabaki zuten. Bost egun baino ez zituen han egin, eta 1993ko apirilaren 3an bilakatu zen behin betiko horrenbeste egunetako lozorroa.

Hileta elizkizunak biharamunean egin zizkieten Lazkaon. Elizaren barrualdea ez ezik inguruak ere bete zituen jendeak, Lazkao Txikiren egiazko tamaina erakutsi zuen sekulako dolu adierazpenean. Agur hunkigarria egin zioten bertsozaleek, herritarrek eta adiskide bertsozaleek, eta mitoa hasi zen gizonaren tokia hartzen.



Marrazki bizidunei esker, gaztetxoek ere izan zuten Lazkao Txikiren berri

Lazkao Txiki hil eta hilabete gutxira argitaratu zuen harekin harreman oso estua zuen Sendoa argitaletxeak, Auspoa liburutegian eta Antonio Zavalaren zuzendaritzapean, Jose Migel Iztueta Lazkao Txikirengana hurbiltzeko ezinbestekoa den *Irriz eta Malkoz*, bi liburukitan banatutako lan bikaina. Beste zenbait lan etorri ziren ondotik, eta, hamarkadaren amaiera aldera, Lazkaoko txikia bertatik bertara ezagutzeko parada izan ez zuten belaunaldiei haren izaera eta ekarpenak hurbildu zizkien marrazki bizidun saila. ETB 1-ek zabaldu zituen Lotura etxeak ekoitzitako marrazki bizidunak.

Arrakasta izugarria izan zuten marrazki bizidunek eta, fikzio antzak errealitateari eransten dion lilurari esker, ezagutu ez zutenen memorian ere txertatu zen Lazkao Txiki, pertsona pertsonaia bihurtuta. Besteak beste, entzutearen poderioz askok

buruz ikasi zituzten saioaren hasierako bertso hauei esker:

Hainbat herritan  
ume txiki bat  
hurbiltzen zitzaizunean  
bere neurrian  
jartzen zenekin  
era maitakor xumean

Txiki izenez  
txiki gorputzez  
haundia maitasunean  
ta haundiago bilakatuko  
zara etorkizunean  
zure txikitasunean

Azken urteotan, Xabier Amurizaren eskutik jarraitu dute Euskal Herria korritzen Lazkao Txikiren bat-bateko bertsoek. Diskoan ere jasota dagoen *Lazkao Txiki bat-bateko sorgina* emanaldian ehunen bat bertso antologia bildu du bertsolari bizkaitarrak, eta haiei esker berpizten da tarteka Lazkaomendikoaren jenioa.





## Bere ispiluan

«Pena guztiak barruan gorde,  
ta umorea atera»

**B**ada 1992an Iñaki Murua bertsolariak Lazkao Txikiri egin zion elkarrizketa gogoangarri eta argigarri bat. «Zuk zeure burua nola ikusten duzu?», galde-tu zion elkarrizketatzaileak. «Ispiluan», erantzun elkarrizketatuak. Txinpartak bezala ateratzen zitzaizkion horrelako erantzunak edonon eta edonoiz, baina hitz bakarreko erantzun hark hari luzea zeukan, eta ispiluak bi aurpegi. Batak publikoak ikusi nahi zuen irudia ematen zuen, gorpuzkera txikiko bertsolari zirikalari eta barre-eragilearena. Ez zen

hori, ordea, Jose Migel Iztuetak ispiluaren bere aldean ikusten zuen irudia.

Txikia zela bazekien, noski. Hitz-jokoetarako zeukan trebezia izugarriarekin, barre egiten zion hala tokatzen zenean berezitasun hari. Bertsoan hasi zenean, Iztueta esaten zioten. Ataundar batek jarri omen zion segituan Lazkao Txiki goitizena, eta harekin jarraitu zuen. «Korrientea segitzeagatik, segi, baina pozik behin ere ez.» Argi zeukan ordea tamainaren garrantzia: «Izenagatik ez handitu ez txikitu».

«Handiusteak txikitzen du gizonaren handitasuna.» «Gizonaren handitasuna ez da luzeran neurtzen.»

Lazkao Txiki tartean baldin bazen, nekez amaituko zen bertso-saioa haren tamainari buruzko aipamenik gabe. Eta, behin eta berriro, argi utziko zuen zer pentsatzen zuen gaiaz. Askoren artean, honatx bi lagin:

Txiki kontua entzuten  
aspertu naiz ia,  
neuk dakit badetela  
azitzen premia.  
Gauz orrekin engaiñatu  
ez dedin jendia,  
gizon txikia naiz baiño  
biotzez aundia.

(Beasain, 1962)

Lazkao Txiki deitzen didate  
norbaitek ipiñi zuna,  
ttikitasun bat daukatelako  
maiz kezkatu ta illuna.  
baiñan alare pozik bizi naiz  
baidadukat osasuna,  
sudur gaiñetik buru gaiñera  
neurtutzen baita gizona.

(Urruña, 1981)



Omenaldirik goxoena, umeak inguruan  
jolasean izatea

Alaia. Hori ere bazuen ageriko nortasunaren zati. Bere ispiluan besterik ikusten zuen, ordea. «Alaia ni? Etzazula pentsa. Hori ez da izaten kanpotik ageri den bezala. Azaletik ez da ikusten pertsona baten izakera. Barruan izan litezke kezakak. Erderaz esaten da negar ez egiteagatik parre asko egiten dala. Horiek askotan pasatzen dira bizimodu honetan.» Txikitasunaren gaia bezala, bertsoan ere maiz landu zuen alaitasunarena, eta bide bertsutik beti:

Adiskideok senti dedana  
garbi aitortuko det nik,  
ez pentsa gero beti umorez  
eta beti nagon onik,  
ez da izaten iluntasunik  
etortzen ez dan egunik,  
eta ez ere barruan penik  
izaten ez dun gizonik.

Ni nola naizen aitortutzea  
askozaz ere hobe da,  
triste egon arren alai itxuran  
beti ibili norbera,  
eta pentsatu holaxen dala  
Txiki honen izaera:  
Pena guztiak barruan gorde  
ta umorea atera.



Mañukortarekin bertsotan.  
Adar-jotzaile finak biak, bakoitza bere estiloan

Eguneroko bizimoduan, bertsotara joaten ez zenean baserrian aritzen zen lanean, Gurutzeta gobernatu arren Abaliñen zituenganakako lotura estuari eutsiz. Otorduak ere gehienak kanpoan egiten zituen eta, ezkongabetasunaren inguruko ziriei ziri zorrotzagoekin erantzuten bazien ere, zama zuen bakardadea. Bat datoz Lazkao Txiki ondo ezagututa hari buruz idatzi duten guztiak sufrimendua zer zen ondotxo zekien gizon zela esatean. Sentikorra zen, minbera, eta bere buruarekin oso-oso zorrotza. «Ezkondu banintz zer izango nintzen egoten naiz pentsatzen», esan zuen behin, esaldia harengandik espero zen ironiaz amaituz: «Hainbeste gau kanpoan, morroi bat ekarri beharko nukela andrearentzako. Bestela, aspertuko litzatekeela. Hori ere askotan pentsatzen dut». Seme-alabarik ez zuen izan, baina umezale amorratua zen. Haurrenganako maitasuna hamar iloben artean banatu zuen —«txiki-txikitatik guretzat aita bezala izan zen. Gu ere berarentzat haren umeak bezala», esana du Felipe Barandiaran ilobak— baina nonahi ikusten zituen neska-mutikoentzat ere bazuen soberan,



aurrean tokatzen zitzaizkionen artean txanpon bat ez zenean keinu bat edo broma bat eskaintzeko adina.

Gorpuzkera txiki, ahots hauskor eta begirada triste-gozoko gizonak bizi-bizia zuen jenioa. Aurpegian aiurri txarreko zetorrela igartzen ziotenean bakean uzten ikasi zuten lagunek. Bazekiten horrelakoetan ez zela harekin giro. Berak ere ez zuen esaltzen ispiluak itzultzen zion irudi hori, eta onartzen zuen tarteka seko egoskorra izan zitekeela, mihi mingarrikoa. Iñaki Muruari esan zion arestian aipatutako elkarrizketan: «Nik, behin frenoak askatzen baditut, edozeini edozein gauza esango zioat, bestela igual egongo nauk bildurrez aterbitu arte baina». Gertara asko dira Lazkao Txikiren beroaldien lekuko. Behin, Lazkaoko taberna batean ezagun galiziar batek zera esan zion, adarra jo nahirik-edo: «Lazkao Txiki, tanta fama. ¿Tú qué eres pues? ¡Muchas plazas, muchos versos, pero tú no sabes nada». Segituan erantzuna: «Es verdad. Pero entre tú y yo lo sabemos todo. Porque tú lo sabes todo, menos que eres tonto. Y eso ya lo se yo». Badira zorrotzagoak... Ez zeukan oso

gogoko bere izaeraren alde hori —«askotan egon izan nauk gero “hori ez nioan esan behar pentsatzen”. Baina esan eta gero»—, baina askoz gehiago gorrotatzen zuen, apaltasuna maite zuen bezainbeste, zurikeria: «Aurrean zurikerian eta alde egin egindakoan ikaragarriak esaten beragatik, hori etzaidak behin ere gustatu



Dantzarako afizio handia zuen gaztetatik. Altuera zela eta, dantza lotuan aritzeak lotsa ematen ziola aitortu zuen behin baino gehiagotan

niri. Jendeak esango dit “hori zitala duk”, edo “petrala duk”, baina nik gorde gabe esango zioat berari. Hala nagoenean, baita Aita Santua etorrita ere».

Mendia, pilota, dantza, lagunartea, familia, liburuak... Horiek zituen gogoko. Futbola, ez asko. Ibili zalea zen oso: «Loteri bat edo horrelako zerbait tokatuko balitzait, nik uste dut bazterrak eta kanpo-aldeak ikusten pasatuko nukeela hemendik atzerako denbora guztia».

Kezkak ez zitzaizkion haatik bere barne-kontuetan agortzen. Bazituen bi asko erretzen zutenak: euskaldunen eta abertzaleen arteko liskarrak eta batasun eza, eta euskararen egoera. Batua zela eta ez zela, ez zuen erraz ematen amore. Honakoa esan zion Amagoia Iban kazetariari 1991n, *Argia* aldizkarirako egindako elkarrizketa batean: «Gaur egun bizi dira euskaldun asko erderaz pentsatzen dutenak, eta hori ez da ona. Hasia da adibidez euskaldun jende asko “nere herria” esaten. Hori erderatik itzultzea da. Askok esango dizute “nere aitte”, euskaraz “gure aitte”,

den bitartean. Orain bakoitza berekoiagoa da, erdaldunak bezala. Lehen ahal bazen ondu egiten zen, ez txartu. Nik horrekin kezka beti izan dut, eta beste batzuek euskara jai handietan bakarrik egiten dute, “Gora Euskadi” esan jaietan eta gero erderaz egin. Hori alferrik aritzea da. Euskara, benetazkoa, zaharra da. Etxean era batetara entzun eta ikastolan beste era batetara ikasi... Nik ikaragarri sufritzen dut kontu hauekin. Laster bai esan beharrean “si” esango dugu, eta egokiagoa irudituko zaigu».



Euskararen egoerak eta geroak asko kezkatzen zuten Jose Migel Iztueta



# Lazkao Txiki, hitzen aztia

Bertsotan ere oso zorrotza zen bere buruarekin

## ENTZULE LILURATUA, BERTSOLARI

Jose Migel Iztueta bederatzireko urteko mutikoa zenean, 1936an, Manuel Olaizola *Uztapide* zestoarra (1909-1983) eta Akilino Eizagirre *Zepai* azpeitiarra (1906-1971) ez ziren nolanhiko bertsolariak. Urte hartako urtarrilaren 19an Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatuak Euskal Herriko txapelketan bigarren eta hirugarren sailkatuak ziren, hurrenez hurren, txapela jantzi zuen Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* hernaniarraren (1860-1936) atzetik. 1936ko maiatzaren 6an, punta-puntako bertsolariak eraman zituzten beraz Lazkaomen

dira San Joan Ante Portam Latinaren zaindaritzapean ospatzen ziren festak bertsoz janzteko. Orduan hartu zuen bertsoaren lilurak Iztueta txikia: «Haiei entzuten zorutzen egon nintzen. Nola esaten zituzten gauzak! Nola bukaera berdinetan egiten zuten!» «Egun hartan sortu zitzaizdan bertsoen zaletasuna», esan zuen maiz Lazkao Txikik.

Lagunarteko jolasa eta lehia izan zen hurrengo urteetan bertsolaritza letrajokoekin izugarri disfrutatzen zuen Jose Migel mutil koskorarentzat, gerra garaian eta gerraosteko aurreneko urteetan ez baitzen erraza zaletasun sortu berria elika-



1965. urtean, umetan bertsotarako grina piztu zion Uztapideren ondoan

tzea. Besteak beste, bertsotan aritzea gaizki ikusita zegoela gogoratu zuen hainbat elkarriketatan, eta etxekoak ez zituela bereziki pozten gaztetxoarengan indarra hartzen ari zen afizio hark. Hamalau urte zituela aritu zen jendaurrean bertsotan elizaurrean egiten zituzten antzerki modukoetan, baina berak bertso-saiotzat hartzen zuen aurrenekoa Legorretan kokatzen zuen, Corpus egun batez, artean hamazazpi urte bete gabea zela. Hamazazpi zituen ikusle joan eta, Lazkaon bertan, San Prudentzio jaietan, Juan Jose Lujanbio *Saiburu* hernaniarrarekin eta Iñaki Eizmendi *Basarri* Errezilen sortutako zarautzarrarekin batera aritu zedin atera zutenean. Lazkaomendin ona



1950.era bazebilen herriz herri eta bigarren mailako txapelketetan

zeturten bertsolari gazte-gaztea bazutela ari zen zabaltzen ordurako. Bigarren mailako txapelketetan ibilia zen soldaduskara joan zenerako. Aurrenekoa Arrasaten jokatu omen zuen, ezagun batek izena emanda. Bertaratzeko beste modurik ez zuenez, bizikletaz egin omen zuen joan-etorria. Afrikatik bueltan ere horrelakoetan ibili zen. Esaterako, bertsolari gazteentzako txapelketa batean berak jantzi zuen txapela Tolosan, 1950ean.

## TXAPELAK ETA PLAZAK

1959 urtera arte, gehienez ere bigarren mailakoak izan behar txapelketak, eta

saioak ere zalaparta handirik gabeak hobe. «Biziraupeneko bertsolaritza» deitu izan dio frankismoaren garai gogorrenetako bertsolaritzari Joxerra Gartziak. Lazkao Txiki, Basarri, Uztapide, Lasarte, Joxe Lizaso, Mattin, Xalbador eta beste hainbati eta haien inguruan biltzen zirenei esker zeharkatu zuen bertsolaritzak tunelaren zatirik ilunena. Gerra ondoko Gipuzkoako lehenengo txapelketa 1959ko azaroaren 8an jokatu zen Eibarren, Mogelen ome-nezko aste baten aitzakian. Gipuzkoako zazpi bertsolari ospetsuenak bakarrik deitu zituzten (Uztapide, Joxe Joakin Mitxelena, Manuel Lasarte, Zepai eta Joxe Lizaso) eta, azken aldiaren egindako merituengatik bi gazte deitu bazituzten ere (Joxe Agirre

eta Gipuzkoako bertsolari gazteen txapelketa irabazi berritan zegoen Txomin Garmendia), han ez zen Lazkao Txikiren arrastorik. Uztapide nagusitu zen.

Gerraosteko isilaldiaren ostean, 1960an hasi zen Euskaltzaindia Euskal Herriko bertsolari txapelketa antolatzen. Aurreneko txapelketa hartan («Campeonato Mundial de Bertsolaris» izendatu zuten...) Basarri nagusitu zitzaizen gainerako 55 bertsolariei. Lazkao Txiki, baina, 1962an heldu zen handien artera. Urte hartako Gipuzkoako txapelketan, Beasaingo eta Eibarko saioetan irabazle atera ondoren, abenduaren 12an Hernanin jokatu zen finalean Joxe Joakin Mitxelenak hartu



1962ko Gipuzkoako Txapelketan heldu zen handien artera. Aurreneko saioetan irabazle izan, bigarren gelditu zen azkenean finalean, Mitxelenaren atzetik



1962ko Euskal Herriko txapelketako finalean laugarren gelditu zen, Uztapide, Basarri eta Xalbadorren ondotik



1967. urtean, Donostian jokatu zen Euskal Herriko txapelketan. Hortxe utzi zion txapelen bila ibiltzeari

zion aurea. Gipuzkoako bigarren izan eta egun gutxira, abenduaren 30ean, Euskal Herriko bertsolari ezagunenekin lehiatu zen Lazkao Txiki txapelketa nagusian, eta laugarren gelditu, Uztapide, Basarri eta Xalbadorren ondotik.

Martxa harturik, Gipuzkoako txapela jantzi zuen 1964ko Tolosan, abenduaren 13an, eta 1965eko aurreneko egunean jo zuen gailurra txapelketetan egindako lanari dagokionez, bigarren gelditu baitzen Euskal Herriko txapelketan, bertsozaletasuna piztu zion Uztapideren atzetik. 1967ko Gipuzkoako txapelketara ez zen bildu, baina urte hartako Euskal Herriko txapelketa gorabeheratsuan —Xalbadorri

txistu jo zioten hartan— hartu zuen parte. Laugarren egin zuen berriro ere, bera eta 1936, 1962, 1964 eta 1967ko txapelketetan nagusigo osoa izan zuen Uztapideren artean Xalbador eta Lopategi gelditu zirela. Hura izan zen Lazkao Txikiren azkeneko txapelketa. «Ratu txarra pasatzen duzu, eta gazteak ere badatoz», esan zuen, txapelketak utzi eta urte askora, 1967an, 41 urte zituela, hartutako erabakia gogora ekartzekoan.

Luze gabe heldu zitzaizkion omenaldiak, eta hamaika plaza eta bazter korritu zituen bizitzeko gelditzen zitzaizkion urteetan. Nahi ahala edo agian, berak esan bezala, behar baino gehiago, zaleak beti

baitzeuden Lazkao Txiki ikusi eta entzuteko irrikitan. Jendaurreko azken bertsoa 1993ko urtarrilaren 24an bota zuen, Donostiako Victoria Eugenia antzokian, Alfontso Irigoien eta Santi Onaindiaren omenezko ekitaldian.

## LAZKAO TXIKIREN BERTSOKERA

Bi hitz behar dira Lazkao Txikiren bertsojera definitzeko: umorea eta liris-moa. Hitz gehiagotan azaltzeko, zenbait bertsolarik eta adituk erabilitakoak baliatuko ditugu. «Bertsolari oso konpletoa, alderdi asko zituena. Joxe Migelen islada-

tu da barre-bertsoak, emakume kontuak, umorea bakarrik... Hori ez da egia. Arlo guztiak ikutu ditu, eta arlo guztietan zen ona. Bere berezitasunik handiena osotasunean dago: hainbeste gai hain ederki erabiltzea... Bere lehen ezaugarria sortzailea izatea da. Gehienok ikas dezakegu bertsoaren teknika moldatzen; baina bada arlo bat berea dena. Originala zen. Egundoko ahalegina egiten zuen bertso berria sortzeko. Ez zuen onartzen aurretik prestatuak. Ez zen horren zalea», irakur dakioke Rufino Iraolari *Irriz eta Malkoz* liburuan. Liburu horretantxe zera dio Mikel Mendiabalek: «Arriskua bilatzen zuen. Ez zen lehenbizi burura etorritako arrazoiekin



Omenaldi bidez-eta, maiz erakutsi zion herriak estimu handian zeukala. Argazkian, Manuel Lasarte eta Iñaki Eizmendi *Basarri*ekin



Jendaurreko azkeneko bertsoa, 1993ko urtarrilaren 23an

konformatzen. Zerbait berezi eta orijinala nahi izaten zuen. Ez zen tropeleko bertsolaria, berezia eta bakarra baizik [...] Horrek, jaialdi askotan, bertsorik txarrenak botatzea ekartzen zion. Baina onenak ere bereak ziren». Antzekoa idatzi zuen Andoni Egañak: «Tipo jeniala zen. Gai bakoitzean eta bertso bakoitzean esan zezakeen onena esatera joaten zen. Behin ere ez zen edozer gauzarekin konformatzen. Orrela dabilenak gauza onak esateko ere bai, baina erridikuloa egiteko arriskua ere gehiago du. Hori zen bere bertso-mundua: beti bila». «Algara asko eragin die ezta-rriei Txikiak; baina hamaika bihotz ondo samur arazi ere egin ditu» zioen, berriz, Joxemari Aranaldek.



Joxe Lizasorekin bertsoan, 1992an

## LAZKAO TXIKI BERTSOLARITZAZ

Azkenerako, bertsolaritzarekin harreman gazi-geza zeukan Lazkao Txikik. Hein batean, beti tonu berean —umorezko tonuan hain zuzen ere— aritzea eskatzen ziotelako, nahiz eta ez izan hori berak gogokoen zuena. *Irriz eta Malkoz* liburuan irakur daitezke Lazkao Txikik gai honi buruz esandako hitz argigarriak: «Hasieran afizioa da bertsolaritza. Derrigorrezko gauzatik ez da ezer ere ondo ateratzen. Aurrena afizioa da, zaletasun handia bertso-tara. Gero, azkenerako, obligazioa, lana. [...] Behin horrela, zera, txiste eta zelebren hasi, eta gero jendeak hala hartzen zaitu, askotan eman behatza eta besoa hartzen du-eta. Baina niri drama gustatzen zait. Bai pelikuletan eta bai bertso-tarako gaietan ere. Nik serioagoa nahiago dut kasi. Esate baterako, ba, gauza ilun bat. Baina nik orain horrelakorik botako banu, herriak esango luke: Ez; Lazkao Txiki ez duk hori».

Antzekoak esan zizkion Iñaki Muruari 1992ko elkarrizketan: «Nik orain azkenerako gogoia galdu diat. Hori duk txarrena». Hala ere, plaza mordoa egiten jarraitzen



zuen. «Lehengo batean esan nian, ba, gu ere fulanak bezela gerala. Aurrena afizio-gatik hasi, eta gero diruagatik. Etxerakoan joaten nauk pentsatzen, lehen ez: edade honekin, nola esan litezke guk esaten ditugun txorakeri horiek?» Aurreko urtean, Amagoia Ibani eskainitako elkarrizketan, honako asmo hau adierazi zion: «Egia esan, pentsatua daukat dagoeneko piskanaka uztea bertsolaritza. Hemendik urte gutxitara plazak baztertuko ditut. Gazteek ere behar dute aukera».

«Bertsolari ere ez diat nik, galdetuta, bertsolari naizenik oraindik esan. “Aritzen naiz”. Lotsatu egiten nauk», aitortu zion Muruari, bertsolari gazteei aholkuren bat emateari uko egin eta gero. Bertsolariak zein ezaugarri behar dituen galdetu zionean eman zion erantzunak badu aholku kutsua: «Aurreneko, gogoia, niri gastatzen ari zaidana. Aurrena, afizio handi bat; eta gero, ez dadila izan atrebituegia ere. [...] Eta, gero, nik izan ez dudana beste gauza bat: edozein tokitan edozeinek aginduta ez dadila bertsotan hasi».

Izan ere, ezetz esatea asko kostatzen zitzaion Lazkao Txikiri. «Ezezkorik nekez, baiezkoa gehienetan», gogoratu zuen Manuel Lasartek Lazkao Txikiren inguruko



«Eskatzen didatena eman beharrak erre nau», aitortu zuen 1987an egindako elkarrizketa batean

liburuan. Egunez ezezkorako zeukan ezgaitasuna ez zitzaion gauez konpontzen. «Lo gozo asko alferrik galdua» zen, Lasarteren hitzetan, eta azken urteetan berari ere damu zitzaizkion «egindako astakeri haiek eta egindako juergak. Lehengo bertsolaritzaren gogortasuna: bizitza erdia pasatu dugu osasuna galtzen, eta orain hura bilatu ezinik».

## UMORISTA?

Kontakizunerako eta hitz-jokoetarako zeukan ohiz kanpoko trebeziak aberastu egin zuen, beste ezaugarri askorekin batera, Lazkao Txikiren bertsokera. Gaia, neurria eta egoera horretarako aproposak

baziren, argia baino azkarrago askatuko zuen pozoirik gabeko miztoa, minik eman gabe erabiltzen saiatzen zena, entzuleen gozamenerako. Dohain hori ez zuen bertotarako soilik gordetzen. Hitz egokiak buruan euren kabuz josten zitzaizkiola dirudi edozein tenoretan bat-batean ateratzen zitzaizkion erantzunak entzun edo irakurtzerakoan. Hitzzen aztia deitu izan zaio, merezimendu osoz deitu ere.

Bizi zela fama handia zuten Lazkao Txikiren ateraldi, txiste eta kontakizunek, eta ez da gutxiagorako. Falta denetik areagotu egin da haien sona, eta txiste kontalari xelebretzat dute askok, txistosotzat. Irudi hori ez zitzaion gehiegi gustatzen Lazkao Txikiri. «Txiste kontaketa atsegin duzu?» galdetu zioten batean, argi utzi zuen ez zela hori bere afizio nagusia: «Hori kontakizunak gogoan eduki eta gero lagun artean festa giroan kontatzea da. Baina ni ez naiz inoiz ibili txiste kontalari bezala, zenbaitek hala uste arren. Hori izaten da bazkal ondotan botatzen duzuna».

Lagungarriak dira Mikel Mendizabalen hitzak Lazkao Txikiren dimentsio horri bere neurria emateko: «Umore fina zuen oso.

Baina ez zen bertsolari bakarrik. Zerbait gehiago ere bazen: zelebrea. Baina zentzu onean harturik; ez arlote eta horrela, artista handi bat baizik. *Ditxolari* ere bazen, eta bete-betekoa gainera. Horretan ere berezko dohain aparta zuen, inor gutxik bezalakoa [...] Joxe Migel jenio bat zen».

Eta, jenioei gertatu ei zaien bezala, bi aurrepiko ispilua ere ez da nahikoa Lazkao Txikiren ñabarduraz betetako irudia behar bezala islatzeko...



Bazkal eta afalondoak ondo animatzen bazituen ere, ez zeukan bere burua txiste kontalaritzat

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Xenpelar dokumentazio zentroari
- Sendoa argitaletxeari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.  
Herminio Madinabeitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2797-3 (Lan osoarena)  
978-84-457-2800-0

L.G.: VI-445/08

# BIDOGUILLEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco